

# ***Dirua galgarri* eleberriaren berrargitalpena: bi hitz**

Paskual Rekalde Irigoien

Aurten ehun urte bete dira –fite erraten da, erraten denez– Mariano Izeta Elizalde sortu zela, uztailaren 14an hain zuzen ere. Mendeurren horren karietara berrargitaratu da bere lehen eleberria, *Dirua galgarri*.

Berrargitalpen partekatua izan da hau. Batetik, Baztango Udala (edo *Balleko Etxea*, hemen erraten dugun gisan), ekimen honen bultzatzaile nagusia –eta hemen ezin aipatu gabe utzi Maitane Maritorea Azkarate, Euskara eta Kultura zinegotzi ohia, eta Paula Kasares, udaleko euskara teknikari ohia–. Eta bertetik, euskararen Akademia edo Euskaltzaindia –gogoan izan dezagun Mariano lehenik euskaltzain urgazle (laguntzaile) eta, gero, euskaltzain ohorezko izan zela–. Bi aldeek adosturiko lan honetan, euskara batura egokitzea eskatu zidaten. Lanaz gainera, bi artikulu bildu nahi izan dira: bata, “Mariano Izeta, zertzelada biografikoak”, Jon Abrilek eskribitua, eta bertzea, “Idazlanaren gaineko ohar zenbait”, nik neronek prestatua.

Nolanahi ere, eta esku artean dugun eleberriaren azterketa linguistikoan zertxobait sakondu baino lehenago, Akademia honi egoki iduritu zaio Baztango bi euskaltzain urgazle hemen gogoratzea: Blas Fagoaga Ariztia eta Joxe Azkarate Etxandi.

## **Joxe Azkarate Etxandi (Aniz 1878 - Aniz 1957)**

Joxe Azkarate Etxandi Anizen sortu zen, Baztango Basaburuan, 1878ko ereiarioaren 23an. Gizon polifazetikoa izan zen Joxe: abeltzaina, politikaria, idazlea, pilotazalea eta ongilea. Eta guzien gainetik euskaltzale sutsua.

Politika munduan Baztanen izan zuen hasmenta. Baztango Euzko Etxeko lehendakaria izan zen eta Baztango Udaleko EAJren zinegotzia 1936 bitarteko azken urteetan. Napar Buru Batzarreko kidea ere izan zen 1931tik 1933ra<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup>Josu Chuecaren arabera (1999), gainerako kideak hauexek izan ziren: Manuel Arantzadi, Pedro Agerrebere, Fortunato Agirre, Santiago Doxandabaratx, Luziano Irisarri eta Anibal Urmeneta.

Garai hartakoak dira, orobat, Nafarroaren izenean 1932ko Aberri Egunean erran zituen hitzak.

Bere sorterrria, Aniz, eta Baztan biziki maite zituen eta haren erakusgarri da 1910. urtean bere etxe bat eskola izateko nola utzi zuen –1955a arte ez baitzuten eskola berria egin–. Urte batzuk geroago, 1928an, alor bat utzi zuen herriko pilotalekua egiteko –Mendiarte izenekoa– eta bere sakelatik pagatu zituen pilotalekuko paretak-eta goititzeko lanak. Ez horrekin aski eta lixiba egiteko tokia (*lixutegia*) ere utzi zuen eta herriko urak ere ekarri zituen<sup>2</sup>.

Pilota ere gustuko izan zuen eta Nafarroako Pilota Federazioko buru izan zen. Pilotako zenbait kronika tokiko egunkarietan eskribitu zituen "Juan de Ursua" goitzenarekin. Baztan kirol elkartearen eratzaille edo sortzaileetako bat ere bera izan zen.

Polikarpo Iraizozkoaren hitzetan, Azkarate "idazlari trebea zan", ez bakarrik pilota gaietan, baita bertze zernahi alorretan ere, erraterako, euskaran, Euskal Herriko ohituretan, euskal dantzetan, mendiko gaietan, Baztango diru kontuetan eta abarretan. Iduri du argitalpen jeltzaleetan eskribitu zuela Azkaratek, euskaraz zein gaztelaniaz, *La Voz de Navarra* egunkarian eta *Amayur*<sup>3</sup> edo *Napartarra* astekarietan.

1957ko abenduaren 14an zendu zen, Anizen, eta herrian ordura arte sekula izan gabeko jende andana bildu omen zen beraren aldeko mezetan.

## **Blas Fagoaga Ariztia (Erratzu 1897 - Iruñea 1966)**

Blas Fagoaga Ariztia Erratzun sortu zen, Etxebeltzean. Eskola eta gazte garaia Erratzun eman ondoren, Iruñera jo zuen ikasterat. Apaizgaitegian apaiztu ondoren filosofia eta euskara irakatsi zituen hantxe berean; liburutegiko arduraduna ere izan zen.

Euskarazko hitzak irakasten zizkien ikasleei. Berak prestatutako koadernotxo batean bildu zituen mila hitz inguru, horietatik gehienak

---

<sup>2</sup> Polikarpo Iraizozek *Zeruko Argian* idatzitako hilberri-txostenetik ateratako datuak.

<sup>3</sup> *Amayur* aldizkarian, 1931ko azaroaren 28an argitaratutako ipuina, "Nere euskera mordollean" izenburupean.

toponimoak. Hitz horien erranahia eta jatorria (etimologia) ikaslarazten zizkien ikasle guzietan, bai eta euskararen Nafarroako lekukotasun historiko garrantzitsuenak ere. Horietaz gain, etxetik euskara zekitenei alfabetatze klaseak ematen zizkien<sup>4</sup>.

1933an 200 pezetako lehen saria erdietsi zuen, olerkian, Nafarroako *Euskararen Adiskideak* elkarteak antolatu zuen sariketan.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen, 1950eko urriaren 27an. Halaxe ageri da Euskaltzaindiaren 1949tik 1964 bitarteko Batzar-agirietan.

### **Idatzitako lanak:**

(a) **Euskarari buruzko lanak:**

- Algunas frases inéditas del euskera antiguo. (1961)
- Azkueren iztegi berritu eta osoturako. (1959)
- Datos para la geografía histórica del euskera en Navarra. (1962)

(b) **Erligio alorreko lanak:**

- *Semblanzas sacerdotales.*
- *Dos lustros de Pastor: Ilmo. Sr. D. Juan Lorenzo de Irigoyen y Dutari, obispo de Pamplona.*
- *Maestro de tres generaciones: D. Pedro María Ilundain Oyaregui, un hombre de Dios.*
- *D. Cipriano Olaso Aranguren.*
- *Por sendas de rectitud.*
- *D. Joaquín Elcano Erro.*

---

<sup>4</sup> Hala erran dit bere ikasle izan zen Andres Iñigok.

## **Mariano Izetaren euskara, euskara batua eta euskalkiak**

### ***Dirua galgarri* eleberrian**

*Dirua galgarri* eleberriaren argitalpen honetan jatorrizko testua euskara batura ekarri da. Kontuan izan behar dugu eleberri honek berrogeita hamahiru urte bete dituela eta ordutik hona euskarak bidea egin duela, bide luze eta oparoa, ia-ia euskara batuak egin duen bide berbera. Euskara bera ere egokitu da, ez baitugu gaur den egunean hiruretan hogeiko hamarraldian idazten genuen bezala idazten.

Aldakuntzarik handienak idazteko moldeari dagozkionak izan dira, ortografiakoak batez ere. Ezbairik ez da Marianok bere idazlanean Baztango euskara nolakoa zen erakutsi nahi izan zuela, baina ez zen horretara bakarrik mugatu. Erdialdeko euskalkietako (gipuzkerazko) eta nafar-lapurterako hitz eta egitura batzuk maisuki erabili zituen (literatura klasikoa ere ezagutzen zuen). Komatxo artean bada ere, frantseseko hitz bat edo bertze ageri dira bere lanean.

### **Euskara batua eta euskalkiak**

Marianok eleberri hau idatzi zuelarik, euskara batua lehen urratsak egiten ari zen. Erraten ahal dugu eleberriko idazmoldea eta *Auspoa* liburutegiko bertze liburu batzuen antzekoa zela<sup>5</sup>. Euskalkian idazten zen, ez baitzegoen eredu estandar edo baturik.

Gaur den egunean, izan badugu eredu batu bat eta ortografia, morfologia eta sintaxia finkatu ditugu, eskuarki. Eta, aldi berean, elkarrekin bizi dira euskara batua eta euskalkiak, ahozkoan bederen.

Hartara, ez aski euskara batuak ematen duenarekin eta eskura ditugun baliabideekin, azkenaldi honetan ahozko mintzo hori idatzira eramaten ari da, erran nahi baita, mintzatu bezala idazteko joera hedatzen ari da.

Halako erabileren (edo iduritsuen) aitzinkariak baitziren, Euskaltzaindiak

---

<sup>5</sup> <http://www.euskaltzaindia.eus>

2004. urtean 137. araua<sup>6</sup> eman zuen. Adierazpen horretan euskalkiek (edo euskararen dialektoek) irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan izan beharreko erabilera zein izan behar den agertzen da.

“Euskalkiak baino lehenago, hor da euskara”. Halaxe adierazi zuen Akademiak “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak” izeneko lanean (*Euskera* XXIV, 1979-1, 103-106). Hortxe adierazten da badela gaur egun, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena. Hizkuntzaren oinarri batu hori eta horren egitura (euskalki guztien egitura komuna) dira beti gogoan izan beharrekoak.

Maiz erran izan da Akademiak ez dituela euskalkiak gustuko, euskalkiak ukatzen dituela. Hori ez da egia. Nahitaez bete beharreko bi baldintza ezarri ditu: bata, idatzian, ortografia bakarra onartzea batuan nahiz euskalkietan, euskara hizkuntza bakarra delako, ez hizkuntza aunitz, eta bertzea, idatziz eta ahoz, hizkuntzaren (euskararen) oinarri bakarraren arabera jokatu beharra beti.

Nolanahi ere, argi dago euskalkia eta batua elkarrekin uztartu beharrak sortzen dituen arazoak eta konponbideak bat baino gehiago direla eta komunikatzeko modu bakoitzari egokitu beharrekoak.

Irakaskuntzari dagokionez, eskolan bi erregistrok izan behar dute lekua: lagunartekoak eta landuak (eskolari zuzen-zuzenean dagozkionak), atzendu gabe ahozkoa eta idatzia bereizi beharrekoak direla. Izan ere, hezkuntzaren zeregin funtsezkoenetako bat ikasleei hizkuntzaren erabileran ahalik eta trebetasunik handiena ematea da, hots, hizkuntza aberatsa eta egoeraren araberakoa.

Hori guzia gauzatzen laguntzeko lau puntu nagusi hauek aipatuko ditut:

a) Euskalkiek beren nortasuna dute eta hezkuntzan zaindu behar dira haien osagai garrantzitsuak eta hizkuntzan betetzen duten zeregina, beti idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko ezberdintasunak kontuan hartuz eta batasunerako arauak betez.

b) Lagunarteko hizkera –gehientsuenean bederen– euskalkian

---

<sup>6</sup> Ikus [www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0137.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0137.pdf)

oinarritzen da eta landua, berriz, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan. Horrenbertzez, hezkuntza-erkidegoak bideratu beharko du hezkuntza-prozesuari dagokion erregistroa, batez ere lexikoan eta esapideetan.

c) Gomendagarria da irakaslea irakaslanean hizkera landuaren eta lagunartekoaren jakitun izatea. Horrela lagunduko dio ikasleari hizkuntzaren erregistroen erabilera-esparruetan. Horretarako ere, baitezpadakoa da irakasleek berariazko trebakuntza izatea.

d) Haurren jatorrizko hizkuntza aintzat hartuta, guziz mesedegarria da, metodoaren aldetik –ikasmultzo berean lan egiten delako– haurren hizkuntza-gaitasunaren araberako lan egiteko moduak lantzea.

# **Dirua galgarri eleberriaren zenbait ezaugarri linguistiko**

## **A. Fonetika-fonologia**

- Asimilazioa (aitzinetik *i* edo *u* bokalak ageri direnean, **a** > **e** bihurtzen da): *arraildue* (arraildua); *beitien* (beheitian); *bederatziek* (bederatziak)...
- Bertze bokal aldaketa batzuk, hala nola, aditz trinkoen iraganean gertatzen direnak, **-a-**: *baizagon* (baitzegoen); *bazazkien* (bazekizkien); *nagon* (nengoen)...
- NOR-NORI-NORK sailean **\*erau** erroa nagusi da Baztan osoan: *datate* (didate); *dauzkit* (dizkit); *dazkizut* (dizkizut)...
- Bustidura (*ñ, ll, tt...*) barra-barra ageri da testuan: *akaballa* (akabaila); *atsegiñ* (atsegin); *bañan* (baina); *baño* (baino); *beñipein*, *beñipein* (behinik behin); *beñere* (behin ere)... Baina ez beti: *kamamile* (kamamila); *yakinen* (jakinen)...
- Bokal galerak (aferesia eta sinkopa):
  - Aferesia (lehen bokala galtzea): *torri* (etorri).
  - Sinkopa: *geinetan* (gehienetan);
- Bokal gehiketak: *eke* (ke).
- Genitibo (NOREN) singularrean **-aren** > **-ain** egiten du testuan: *asmoakin* (asmoarekin); *buruekin* (buruarekin); *diruen kartera* ('diruaren kartera')...
- Erakusleen deklinabidean: *ari*, *arei* (hari); *etaz* (haietaz); *oiek* (horiek)...
- Testuan **-rtz-** atxiki da: *bertze*.
- Aspaldi euskarara ekarritako hitzetan (mailegu zaharretan) gaztelaniazko

**-on > -oin** egiten da liburuan: *arrazoin* (arrazoi). Mailegu berrietan, berriz, **-on > -on** ageri da: *millon* (milioi). Horrez gain, **-sión > -sione** ageri da: *komisioea* (komisioa).

- \*j-ren ebakera [j] da gehienetan: *yaiki* (jaiki); *yakinen* (jakinen); *yan* (jan); *yardetsi* (ihardetsi)... Baina ez beti: *Jainko*; *jaso*; *juizio*.
- *oa* bokal multzoaren aitzinean **-g-** garatu da: *goatze* (ohatze).
- Sudurkarien aitzinean (*m, n, ñ*), *o* bokala *u* bihurtzen da batzuetan: *una* (hona); *untan* (honetan). Baina ez beti: *ontan* (honetan).

## B. Morfologia

- Ipar Euskal Herriko **-rat** ageri da testuan, modu bakanean bada ere: *arat* (hara).
- Berezko **-a** duten hitz batzuk gabe ageri dira liburuan: *eskol* (eskola); *gauz* (gauza); *komisari* (komisaria)...
- NOR-NORI-NORK aditza erabili beharrean NOR-NORK aditza erabili du batzuetan, datiboa izenean agerian dagoenean: *erran zuen osabak illobari* (erran zion osabak illobari); *Leblanc'en ofizinan lanari lotu ziren bere ordurako osaba-illobak* (Leblanc-en bulegoan lanari lotu zitzaizkion bere ordurako osaba-illobak). Gaur egun galtzen ari da.
- Geroaldia egiteko **-n** letraz akitzen diren aditzetan gehienetan **-en** erabiltzen du: *egiñen* (eginen); *igan, igen* (igan)...Hala ere, ez beti: *izango*.
- Ahalera egiteko aditz trinkoak eta perifrastikoak erabili dira liburuan. Trinkoen artean hauek dauzkagu: *dezazkegu* (ditzakegu); Eta perifrastikoetan, honako hauek: *enitzen tortzen aal* (ez nintzen etortzen ahal).
- Euskara batuan *izu-z* hasten diren izen batzuetan Baztanen *izi-* egiten



da: *izigarri* (izugarri); *izialdura* (izua); *izitu* (izutu).

## C. Sintaxia

Prosa laua denez eta elkarrizketak anitz eta laburrak, sintaxi alorreko ezaugarri bereziak bakanak dira. Dena dela, hona hemen zenbait:

- Hitz ordena berezia, ahozko mintzoari lotutakoa: *lehenik gauzak bear ziren ongi antolatu* (lehenik gauzak ongi antolatu behar ziren)...
- Akusatiboko marka plurala (-AK) erabiltzea ergatibo pluralarena (-EK) erabili beharrean: *agur egin zuten bi illobak* (agur egin zuten bi illobek); *gure gizonak ez zuten batere sumatzen* (gure gizonak ez zuten batere sumatzen)...
- Asimilazioz -EK marka erabiltzea -AK marka erabili beharrean: *bildu ziren Claudet eta bere lagunak kafe batean* (bildu ziren Claudet eta bere lagunak kafe batean)...
- Subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura ez betetzea: *Claudet'ek erran zaben bere mendekoi* (Claudetek erran zien bere mendekoei).

## D. Lexikoa

Eleberri honetako lexikoa anitza da. Gehienbat Baztanen erabiltzen diren hitzak ageri badira ere, ez dira guti erdialdeko euskalkikoak (gipuzkerakoak) eta lapurterakoak. Horiei gehitu behar zaizkie neologismo edo hitz berri batzuk eta, orobat, komatxo artean ageri diren frantseseko hitz bakan batzuk.